

IKASGELA DIGITALA: HEZKUNTZA ERRONKA BERRIA

Jardunaldiak Bilbon egin genituen 2010ko azaroak 30 eta abenduak 1 egunetako arratsaldetan. Bertan 30 lagun inguru elkartu ginen.

Jardunaldien helburuak honako hauek ziren:

- Eskola 2.0 programaren alde onei eta izan ditzakeen arazoei buruzko eztabaida bideratzea.
- Ikasgelan lan egiteko modua aldatzeko aukera ematen duten metodologia berriak ezagutzea.
- IKT teknologiak erabiltzean sor daitezkeen desorekak berdintzeko esperientzia egokiak ezagutzea eta aztertzea, ikasleen artean amildegi digitalik egon ez dadin.
- Metodologiak identifikatzea eta gizarteak hezkuntzan parte hartzeko dituen modu berriak hobetzea, iritzi guztiak hezkuntza-komunitatearen esparruan sartuz ikaste-prozesua hobetzeko.

Deialdia oso baliozgarria izan zen hausnartzeko, ikasteko eta ikastetxeetan erabiltzeko zenbait baliabide ezagutzeko.



Jardunaldien irekieran, **Sol Antolín Herrero**, antolatzaile taldeko partaideak, Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerarekin lotutako zenbait ideia aurkeztu zituen. Funtsezko helburua zen azpimarratzea ikasle guztiek eskura izan behar dituztela honelako teknologiak eta hauek aniztasunari erantzuteko baliabide egokiak izan daitezela. Jardunaldien aurkezpenean aipatutako ideia batzuk testu honen amaieran bilduta daude.

Aurkezpena eta gero, lehenengo saioa **Tres Tizas** taldeko irakasleek dinamizatu zuten. Lehenengo, **Carlos Diez**, hizkuntza irakasleak taldeko planteamenduak eta bere esperientziatik hartutako adibide praktikoak aurkeztu zituen.



Lehenengo egunaren bigarren zatian, **Patxo Landa** irakasleak azaldu zituen teknologien erabilera DBHn planteatzeko proposamenak, eztabaida bultzatu zuen eta zientziaren irakaskuntzarekin lotutako adibideak aurkeztu zituen.



Saio osoan zehar partaideen inplikazio handia egon zen eta planteamendu teorikoak, praktikoak eta kritikoak elkartrukatu ziren.

Bigarren egunean, Lehen Hezkuntzan egindako esperientziak aztertu ziren, bereziki. Horretarako, **Carmen Vega**, Etxebarriko San Antonio eskolako irakasleak etapako bigarren eta hirugarren zikloetan egindako jarduera zehatzak aurkeztu zituen. Haien artean, argazki kamera digitala, grabatzailea, internet sarea eta baliabide ugariaren erabilera proiektu zehatzetan aipatu zituen. Honekin batera, gurasoen inplikazioa eta auzoko giza baliabideen garrantzia azpimarratu zituen.



IKASGELA DIGITALA: ERRONKA BERRIA

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik hona gizarte industrialaren informazioaren gizarte bilakatzen ari da, eta horren ondorioz, gizarte modernoetako lanbide gehienak ez dira loturik egongo produktu ukigaiak produzitzen dituzten lantegiei, mota guztietako informazioa sortzeari, gordetzeari eta prozesatzeari baizik. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiarik (IKT) lotutako sektoreek berebiziko garrantzia dute eskema horretan.

Beraz, XXI. mendeko herritarren erronka gizarte berri horren eskakizunen arabera bizitzea da.

Hezkuntzan eraldatze horren bi alderdi dira bereziki interesgarriak:

Lehenengo eta behin, hemendik aurrera gaitasun nagusia informazio lehenetsia hautatzea eta prozesatzea izango da: enpresen, erakundeen eta pertsonen arrakasta edo porrota gero eta hein handiagoan “hezkuntza” gaitasun horren ondorioa izango da, eta gero eta hein txikiagoan baliabide materialen ondorioa.

Bigarrenez, eraldaketa hori botere jakin batzuek erabili dute gaitasun horretarako sarbidea dutenen eta ez dutenen arteko desoreka handitzeko.

Gizarte industrialaren informazioaren gizarte bilakatzearen ondorioz, IKT teknologiak duela urte batzuk sartu dira ikasgeletara, baina aldaketa hori beste urrats bat baino ez da, eta ez luke ikasleen artean amildegi digital bat sortu behar, beste sektore batzuetan gertatzen ari den bezala.

Eskola 2.0 programak oso aldaketa garrantzitsua ekarriko du hezkuntza munduan, ikasgelan Internet, arbel digitalak, eskuko ordenagailu bat ikasle bakoitzeko, Linux, software askea eta abar egongo baita, eta ikasteko eta irakasteko modua zeharo aldatuko baita. Adituen ustetan, tresna berri horiek oso lagungarriak izango dira ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko.

Hala eta guztiz ere, teknologiak berez ez du balio emaitza horiek lortzeko. Ikastetxeetan Eskola 2.0 programa abian jartzeko metodologia berriak erabili behar dira, ikaslea ikaskuntzan gehiago inplikatu behar delako, eta horren ondorioz ikasleek beren ikaskuntzaren kontzientzia handiagoa izango dute.

Garrantzi handikoa da irakasleen betebeharrak nagusia ikasleen artean gaitasun digitala garatzea izatea, XXI. mendeko herritarrak izanik, beste gauza batzuen artean, mundu digital horretan zehar mugitu beharko direlako.

Proposamen horrek abantaila handi bat du: ikasle guztien berrikuntzarako eta hausnarketarako gaitasuna berdina da. Eta beraz, banakako gogoeta, ekimena eta berrikuntza sustatu beharko dira, kontzeptuak errepikatzeari eta ziurtzat edo bizitza osorakotzat jotzen dena ikasteari garrantzi txikiagoa emanez.

Horrek guztiak ikasgelako metodologiaren aldaketa bat eskatzen du. Curriculum berrietako oinarrizko konpetentziak didaktikaren berrikuntzarako bide bat eskaintzen digute. Konpetentziak irakasgaien gainera jartzen dira, irakasgai bakoitzeko eduki zehatzak landuz garatzen baitira. Ikasgelan erabiltzen den ikuspuntu didaktikoari esker lortuko da, batez ere, irakasgaiak konpetentzien garapenera erraztaileak izatea.



Informazioari lehenetsua ematen dioten metodologia transmititzaileek indarrean jarraitzen badute, aurrerapen urria egingo dugu arlo horretan. Esplorazioa, ikerketa, ekintza, eztabaida eta abar sustatzen duen didaktika aktiboa sartu behar da ikastetxeetan

Ildo horretatik, ikasgelan IKT teknologiak egoki erabiltzeak aukera ematen digu irakasgaiaren didaktika berritzeko. Ikasgelan IKT teknologiak sartzea ez da aukera neutroa, aldagai metodologikoetan aldaketa handiak baitakartza. Baina ondorio horiez gain, ikasgelan IKT teknologiak egoki erabiltzeak oinarrizko konpetentzia gehienak garatzen laguntzen du, hala nola:

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia; ikasleek, irakurriaren ulermeneko askotariko estrategiak garatzeaz batera, ahozko eta idatzizko testuak ekoizten baitituzte, eta talde lanaren bitartez ikaskideekin elkarrengaitzatzen baitute.

Informazioaren trataerarako konpetentzia eta konpetentzia digitala, sarean informazioaren bilaketa gidatua, garapena eta eraldaketa bultzatzen baita, kopia automatikoa eta kritikarik gabekoa alde batera utzirik. Horrekin batera, askotariko informatika-programak (Word, PowerPoint...) erabiltzeko konpetentzia digitalak garatzen dira, sarean zehar aise nabigatu ahal izateko eta ikasgelako lan prozesuan komunikazio-modu berriak (posta elektronikoa kasu) optimizatzen.

Ikasten ikasteko konpetentzia, ikasleak bere ikaskuntza modu autonomoan garatzen baitu. Ikasleek aktiboki aurre egiten diete egin beharreko lanei, horretarako zenbait erabaki (lanak noiz, nola egin...) hartu behar dituztelarik.

Giza eta gizarte konpetentzia, IKT teknologiak talde lanetarako erabiltzean, ikasleen arteko elkarrekintzak areagotu egiten baitira. Elkarriketaren erabilera. Lanak elkarrekin gauzatzeko derrigorrezkoa da zenbait estrategia garatzea, ikuspuntu ezberdinak bateratzeko elkarriketa erabiltzea, eta bukaerako produktua aberasteko iritziak bateratzea .



Gela digitala, hezkuntza erronka berria

ALGUNAS PÁGINAS WEB, CONFERENCIAS O VIDEOS SOBRE EL AULA DIGITAL:

Jordi Adell "Actividades didácticas para el desarrollo de la competencia digital"

Gipuzkoako Berriztapen proiektuen VII. Jardunaldiak: "gaitasunak garatzen" / VII Jornadas de experiencias de innovación educativa de Gipuzkoa: "Desarrollando competencias". 18 de abril de 2008. Palacio de Miramar (Donostia).

<http://video.google.com/videoplay?docid=-6166335145280850846#>

Jordi Adell es Doctor en Filosofía y Ciencias de la Educación y profesor del Departamento de Educación de la Universitat Jaume I (la UJI) en Castellón (España), donde da clases de Nuevas tecnologías aplicadas a la educación. También dirige (es un decir) el Centre d'Educació i Noves Tecnologies (CENT) (Centro de Educación y Nuevas Tecnologías) de la misma universidad, una unidad organizativa dedicada a la investigación, la formación, el asesoramiento y la difusión de las nuevas tecnologías aplicadas a la educación.

Barlam,

<http://periodismohumano.com/culturas/no-al-libro-de-texto.html>

Tres tizas. <http://trestizas.wetpaint.com>

El proyecto TRES TIZAS reúne reflexiones sobre el mundo educativo y actividades sencillas de Lengua Castellana con un enfoque TIC creadas por cuatro profesores para unos contextos educativos complicados: PRL

(Programa de Refuerzo Lingüístico), Diversificación Curricular (DC) y ESO en cuatro Institutos de Enseñanza Secundaria de Bizkaia.

Marcos Cadenato: IES Emilio Campuzano BHI, Aster Navas IES Abadiño BHI, Patxo Landa: IES Ortuella BHI, Carlos Diez IES Bertendona BHI, Gorka Fernández Radio Tres Tizas

La necesidad de dar coherencia pedagógica a las prácticas de aula con TIC:

<http://ordenadoresenelaula.blogspot.com/2008/05/4-la-necesidad-de-dar-coherencia.html>

Decálogo para el uso didáctico de las TIC en el aula:

<http://ordenadoresenelaula.blogspot.com/2007/03/decalogo-para-el-uso-didctico-de-las.html>

El profesorado y las TICs: miedos, incertidumbres y desafíos profesionales:

<http://ordenadoresenelaula.blogspot.com/2007/03/el-profesorado-y-las-tics-miedos.html>

¿Por qué y para qué utilizar ordenadores en las escuelas?:

<http://webpages.ull.es/users/manarea/udtic/1porque.htm>

Presentación de Francisco Muñoz de la Peña: Aprender en la Escuela 2.0:

<http://www.slideshare.net/aula21/aprender-en-la-escuela-20?src=embedol>

Innovación Educativa- Blog de Angel Fidalgo Innovación Educativa

Artículo de José Cabrera, Escuelas 2.0. Claves para construir la educación del futuro:

<http://blog.cabreramc.com/2009/07/24/escuelas-20-claves-para-para-construir-la-educacion-del-futuro/>

Presentación de Guillermo Lutzky Escuela 2.0 Otro modo de construir conocimiento en las aulas.

Jakingarriak aldizkaria 65. zbkia 18-25 orrialdeak IKTak, hezkuntza aireberritzeko aitzakia- Iñaki Larrea eta Jose Ramon Vitoria - HUHEZI

Euskara web 2.0 gunean" Iratxe Esnaola Informatikariaren Euskara web 2.0

Jardunaldiak: Bilbon, 2010eko Azaroak 30 eta abenduak 01an